

***Musika-ikasketa Profesionaletan sartzeko probak  
Ebaluazio-irizpideak  
Kontrabaxua***

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK**  
**KONTRABAXUA**

**Ebaluazio-prozedura**

<b>NOIZ</b>	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren deialdian ezarritako datan.
<b>ZER</b>	Entzunaldiak, Kontserbatorioko web orrian argiratuta dagoen sarrera-proben aginduak ezartzen dituzten edukiaz osatuta egongo dira.
<b>NORK</b>	Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren deialdiak ezarritako irakasleak.

**Ebaluazio-irizpideak**

**1– Giharren indarra eta arnasketa, instrumentua behar bezala jotzera egokitzeko erabiltzea.**

Irizpide honekin, mugimendu-koordinazioa mendean hartu, eta instrumentua jotzeak eskatzen duen giharren ezinbesteko indarren eta instrumentua jotzean kontrola galtzea ekarriko duten tentsioak saihesteko behar den erlaxazio-mailaren arteko oreka ebaluatu nahi dira.

**2– Estudioak eta obrak jotzen direnean, horiek menderatzen direla egiaztatzea alderdi teknikoak eta musikalak banandu gabe.**

Irizpide honek, interpretazio egokia lortzeko behar diren ezagutza tekniko eta teorikoak elkarren artean lotzeko gaitasuna ebaluatzen du.

**3– Afinazioan eta instrumentuak dituen soinu posibilitateak erabiltzeko gaitasunean entzumen- sentikortasuna frogatzea.**

Irizpide honen bidez, instrumentuaren ezaugarriak, funtzionamendu mekanikoa eta dituen posibilitateen erabilpenen ezagutza neurtu nahi da.

**4– Garai eta estilo ezberdinetako obrak interpretatzea.**

Irizpide honen bitartez, ikasleek, euren instrumentuaren erreperorioaren eta erreperorio honen obra nagusien inguruan duten ezagutza ebaluatu nahi da, bai eta dagozkion irizpide estetikoak aplikatzeko sentsibiltate eta irudimen maila ere.

**5– Buruz interpretatzea.**

Irizpide honen bidez, ikasleek obrak zenbat menderatzen eta ulertzen duten baloratzen da, bai eta obra horien soinu-emaitzari buruzko kontzentrazio-gaitasuna ere.

**6– Testu musikalak onartuko dituen malgutasun-mugen barruan interpretatzeko beharrezko den autonomia erakustea.**

Irizpide honek, kontzeptu pertsonal estilistikoa eta, testua errespetatuz, interpretazio-askatasuna ebaluatzen ditu.